

DROGETEN

EBERRA

Ermua eta Mallabiko aldikaria. 233. zkia. 2015eko apirila

Udaberria loratu zaigu

2015-2016 IKASTURTEAN
IKASTETXE BERRIA IZANGO DUGU



DBH ETA BATXILERGO IKASKETAK LOTUKO DITUEN IKASTETXEA
ERMUKO INSTITUTUA

★ PROIEKTUAK ★

Kalitatea Hezkuntzan
Hizkuntza Normalkuntza Proiektua
Elkarbizitza Proiektua
Eskola Agenda 21
IKT Informazio eta Komunikaziorako Teknologiak
Zientzia Proiektua
Bidelaguna: Irakastorduetatik kanpoko indartzea
Hezkidetza

DBH

12-16
Urte

BATXILERGOA

16-18
Urte
Zientziak
Humanitateak eta Gizarte Zientziak



BATXILERGOKO
AURREMATRIKULA

Maiatzaren
4tik 14ra

Matrikulatzeko
IES Anaitasuna BHI eta IES
Ongarai BHI-ko idazkaritzetan



MATRIKULA EGITEKO ORDUTEGIA
Astelehen, Astearte eta Ostegunetan:
8:30etik 13:00etara eta 14:30etik 16:30era.
Asteazken eta Ostiraletan:
8:30etik 14:00etara.



INFO@IESERMUABHI.COM
TEL. 943 254 525 / 943 170 983



ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.org

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran,
Igone Amesti,
Ibaia Azagirre,
Leire Elustondo,
Estibalitz González
eta Ekhi Velar.

**KOORDINAZIO
ETA MAKETAZIOA:**

Ekhi Velar.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Esther Larreategi

LAGUNTZAILEAK:

Antonio Hernández 'Cuco',
Patxi López,
Pello Mugarza,
Valentín Mugarza,
eta Juan Carlos Martín .

ARGAZKIAK:

Igone Amesti,
Ibaia Azagirre,
Esther Larreategi,
Unai Rodríguez,
Peio Gokoetxea,
Fernando Larrea,
Piedi Eizagirre,
Alex Bouzo,
Iñaki Arano,
Estitxu Saenz de Zaitegi,
Estibalitz González,
Valentín Mugarza,
eta Ekhi Velar.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Ainitze Antxia, Nora Mateos
eta Olatz Vidal.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

11 33-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-21 3/1994.


*Drogeteniturrrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko ugaztunak

...Gure baserritarren ahotik

BASAUNTZA corzo *Capreolus capreolus*

Parajeotan ezezaguna zen, baina polito ugaldtu da. Ilearn kolorea urtaroeekin batera aldatzen zaio eta arraren adarrak ere, neguari itxaron beharko bistaratzeko; adinean gora joan ahala buru gaineko antena korapilatsuok handitzera egiten diote. Buztana, oster, txikia baino txikiagoa, ikusi ere ez zaio egiten. Belarra, huntz-orria, basoko fruituak, perretxi-koak, ezkurak eta larrik gazte eta guriak jaten ditu mokofin honek, sasoiari sasoiko landara nutritiboenak sena ikaragarriaz aukeratuz. Baso eta landetan behar txarrak egiten daki: pinu-landareei punta jan, fruta-arbola gazteei azala zuritu... endokatu eta nabarmen atzeratzen dira, ihartuz gehienetan. Dotorea, bizia, salto txikika mugitzen da eta egunsentian edozein basabidetan egin dezakegu topo berarekin, bakarrik, bikotean, kumeekin...



Hilabete honetan...

MUNDUKO AHOTSAK....4	MOTZEAN..... 16-17
Yanei Lopez (Kuba)	Liburu eta Disko Azoka
ELKARRIZKETA5-7	IRITZIA 18
Iñaki Arano, Ermuko Txirindulari Elkarte	"Bokazioa ez da elizarena soilik, ezta?"
MALLABIAN ZER?8-9	SALEROSKETAK 19
Haritz Aranburu	Saldu, erosi edo agurtu
ERMUAN ZER? 10	ANTZINAKOAK.....20
Pizpilluen arbola	Ermuko eta Mallabiko argazkiak
ERREPORTAJEA 12-13	KALEKO INKESTA21
Txindurri taldeak 40 urte	Herriko alkatea izango bazina, zein izango litzateke zure lehentasuna?
KIROLZALE 15	AGENDA22
Iñigo eta Alex Ugena	Maiatzeko agenda

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Yanet Lopez

Ermura etorri zenean pezetatan ordaintzen zituen gauzak Yanetek. 1999an izan zen hori. Guraso eta hiru anai-arrebak Kuban ditu eta bere aberria bihotzean darama. Hala ere, hemen oso gustura dagoela aitortzen du eta 10 urteko alabaz maiteminduta dago.

- Nola gogoratzen duzu zure haurtzaroa Kuban?

Zoragarria! Ez dago beste hitzik azalzeko. Oso zorionsua nintzen. Supositzen dut hemengo umeen antzera, beti jolasean. Jostailu askorik ez genuenez harriekin, makilekin... edozer gauzekin jolasten genuen. Umeek egiten dituzten kontuak azken finean.

-Eta nagusitu zinenean?

Ikasketak egin nituen Elektrokardiograma teknikaria izateko. Zazpi urtez egin nituen ikasketa horiek eta gero hemengo mutil batekin ezkondu nintzen.

-Hori izan zen Kuba utzi eta Ermura etortzeko arrazoia?

Bai. Orain dela 16 urte etorri nintzen, 1999eko urtarrilaren 4ean.

-Nolakoa izan zen zure herrialdea utzi eta beste batera bizitzera joateko momentua?

Oso gogorra. 16 urte daramatzat Euskal Herrian eta oraindik ez naiz ohitu. Nire aberriarekiko dudan sentimendua handia da. Lehen egunak hemen ez ziren batere errazak izan niretzat. Elurra, hotz handia zegoen... ez nuen etortzeko momentu proposena aukeratu! Gero senarrarekin



irteten nintzen, ez nuen inor ezagutzen, eta Kuban utzitako familia eta lagunak faltan nabaritzen nituen. Erosketak egitera joaten nintzenean ez nekien pezetan kontuak nola funtzionatzen zuen ere (barreak)! Orain bai, hainbeste urteren ostean lagun asko daukat hemen.

-Alde handia dago Kuba eta hemengo bizimoduen artean?

Bai, asko. Han oso pertsona irekiak gara, beti irribarrez... bizitzeko beste modu bat da. Jantzerako orduan ere, hemen tipula baten antzera gabiltza hotzari aurre egiteko (barreak). Janari kontuan ere ezberdintasun asko dago herrialde bien artean. Kuban arroza eta babarrunak ezin dira falta edozein plateretan eta, gero, haragia edo dena delakoa gehitzen diogu.

-Zer ekarriko zenuke Kubatik?

Poztasuna. Hemengo bizitza estresatuegia da.

-Eta zer eramango zenuke hemendik hara?

Supermerkatuak. Hemen denetarik erosi dezakezu! Hemengo jendearen izaera ere gustatzen zait. Batzuk itxiak dira, baina gehienak zoragarriak dira eta asko lagundu didate. Oso gustura nago hemen.

-Kubara bueltatzeko asmoa daukazu?

Bai, baina oporretan familia ikusteko. Azkeneko aldiz orain dela zortzi urte joan nintzen.

-Zer moduz moldatzen zara euskararekin?

Euskaltegian hiru hilabete egin nituen eta ez nintzen ezertaz jabetzen (barreak)! Zerbait ulertzen dut eta alaba euskalduna da, baina ez dakit euskaraz hitz egiten.

Ekhi Velar

SAN ANTONIO

OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

AIZ

Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

IKASTOLA

1968tik Ermua euskalduntzen



Iñaki Arano, Ermuko Txirrindulari Elkarte:

“Fisikoki ona izateaz gain, psikologikoki ere onuragarria da bizikletan ibiltzea”

Bizikletan ibiltzea gustatzen zaio, disfrutatu egiten du, eta bere berbetan igartzen da. “Bizikletari dedikazioa eskaintzen badiozu, berak emandakoa bueltatuko dizu”. Ermuko Txirrindulari Taldeko zikloturisten antolakuntzaz arduratzen da Iñaki Arano. Ibilbide, web orri, bakoitzak egindako kilometro, irteera eta beste hainbat gauzaz kezkatzen da Arano 2002az geroztik eta jarduna mekanizatu duela aitortzen du. Ermuko maillota hara eta hona harrotasunez darabil bizikletaren gainean eta txirrinduak ematen dion askatasunaz gozatzen du errepide gainean.

- Urteak daramatzazu Ermuko Txirrindulari Taldean eta bertan 'The Boss' (ingelesez 'burua' edo 'agintaria') bezala ezagutzen zaituztela entzun dugu...

(Barre egiten du) Bai, tira, horrek azalpen bat dauka. 40 urterekin hasi nintzen bizikletan ibiltzen, tonbola batean bizikleta bat tokatu zitzaidalako! Mendiko bizikleta zen. Nire alaba biak oso gazteak ziren eta kirola egitea neukan buruan sasoi hartan. Gaztetan futbola eta beste kirol batzuk egin izan nituen, baina urteek aurrera egin ahala lagatzen joan nintzen.

-Tonbolako bizikleta horrek, beraz, kirolera bueltatu zintuen.

Inguruan ibilaldiak egiten hasi nintzen, baserri artean, eta pedalei ematea gustuko nuela ikusi nuen. Gainera, gaztegia izan gabe ere, egin daitekeen zerbaite dela ikusi nuen. Tonbolan tokatu zitzaidan bizikleta ez zen apartekoa eta beste hobeago bat erostea pentsatu nuen. Lau anaia ditut eta 18 urte zituenetik txirrindularitzaren munduan aritu izan da horietako bat. Berak errepideko bizikleta erostea gomendatu zidan. Egia esan ez zitzaidan asko gustatzen lokatz artean ibiltzea eta zementuzko bideetan ibiltzen nintzen gehienetan.



Aniak bizikleta bat utzi eta eurekin irteten hasi nintzen, nahiz eta hasieran ezin nien jarraitu! Errepidean ibiltzeko bazegoen taldetxo bat Ermuan. Gustatu egin zitzaidan eta bizikleta berria erosi nuen.

- Gaur eguneko bezalako taldea zen?

Antolatzeko beste modu bat zeukaten eta antolakuntzaz arduratzen zena, Modesto Saenz de Zaitegi (gaur egunean, uste dut, 71 urte dituena eta gurekin bizikletan dabilena oraindik, oso ondo gainera), antolakuntza uzteko gogoz zebilen. Nik uste nuen gauzak hobetu ahal zitezkeela, ibilbide gehiago sartzea adibidez, eta horren ardura hartu nuen 2002an. Aurten, adibidez, txirrindulari bakoitza 80 egunetan irten daiteke taldearekin. Web gunea sor-

tu eta bere erabilera bultzatu nuen baita ere, taldearen komunikazioa errazteko, informazioa eta argazkiak sartzeko, eta abar. Gauzak aldatu egin dira denboraren poderioz, adibidez, hamarretakoaren kontua. Behin hamarretako lehiaketa egin genuen eta nire aniak irabazi zuen! Lehen ibilbide erdian denbora luzez geratzen ginen, denetarik jan eta oraindik etxera itzultzeko asko geratzen zen. Orain itzuleran geratzen gara, eguna nola joan den komentatzeko eta abar, horrela taldearen arteko erlazioa estutzen delako.

- Nola antolatzen zarete gaur egun bizikletan ibiltzera irteteko?

Otsailaren hasieratik urriaren amaierara arte (abuztua ezik) egutegia daukagu zehaztuta, asteburu eta jaiegunetan bizikletan irteteko ibilbide eta ordutegiak ditugu ezarrita. Ni taldera heldu nintzenean, bi taldetxotan banatzen ziren herriko taldeko zikloturistak eta orain hiru taldetxo dauz-

kagu. Horrela, norberaren mailara egokitzen den taldetxoa hobeto aukeratu dezake bakoitzak, egingo den ibilbidea, eramango den erritmoa... kontutan izanda. Ni bigarren taldetxoan joaten naiz, ikasi dut zein den eraman behar den erritmoa eta ez zait axola edozer esatea erritmo hori mantentzeko. Agian horregatik deitzen didate 'The Boss' (barreak).

- Beraz, irteerak egiten dituzuen bakoitzean hiru ibilbide ezberdin eskaintzen dituzue?

Horrela da, 161 ibilbide eskaintzen ditugu urte osoan zehar. Martxoaren amaieratik uztaile arteko igande eta jaiegunetan hiru ibilbide eskaintzen ditugu. Gainerako egunetan, orokorrean, bigarren eta hirugarren taldetxoak elkarrekin doaz, kontuan izanda lehen taldetxo maila handiena duena dela. Lehen taldetxoari egokitutako ibilbideak gogorragoak dira, bigarren taldetxoari egokitutakoak gutxiago eta hirugarren taldetxoarentzako egokitutakoak are erraza-

“Otsailaren hasieratik urriaren amaierara arteko egutegia daukagu zehaztuta”





ZERMIK

SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT



ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com

Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

goak. Esan beharra daukat, hala ere, irteeretan talde-txotan banatzen bagara ere, denok talde bat osatzen dugula, talde bat garena.

- Zein taldetxo da anitzena?

Orain arte bigarrena izan da, baina orain lehena dela esango nuke.

- Herrian maila handia dagoenaren seinale!

Bai, baina kanpotik ere etortzen dira gurekin bizikletan ibiltzera: Eibar, Matiena, Durango, Mallabia, Zaldibar, Elgoibar eta baita Irunetik ere! Gauzak ondo egiten ditugun seinale dela uste dut. Gero, irteera

bakoitzean hiru taldetxotan zeintzuk irten garen eta zenbat kilometro egin ditugun neurtu eta horrekin nolabaiteko sailkapen bat egiten dugu. Norbaitek klasikaren batean parte hartzen badu, egindako kilometroak apuntatzen zaizkio. Horrela, urte amaieran taldearekin irteera eta kilometro gehien egin dituenari txapela ematen diogu taldeko afarian. Bizitasuna ematen dio horrek taldeari.

- Zenbat kilometro egiten dituzue urtean?

laz, noizbait irten garen guztien artean (97 pertso-

“Norberaren ezagutza beste adin tartetara zabaltzea gustatzen zait”

na) 170.000 bat kilometro egin genituen. Gehien egin zituenak 6.000 bat kilometro egin zituen guk antolatutako ibilbideen artean, adibidez.

- Adinari dagokionean, nolakoa da taldeko kide-en profila?

Denetarik dago! Lehen aipatu dudak Modesto eta Juan Luis Txurruka, adibidez, 70 urte baino gehiagorekin oraindik gurekin irteerak dira. 25 bat urte dituztenak daude, baita ere. Nik uste dut bataz besteko adina 45 bat urtekoa dela. Hori da gustatzen zaidana, norberaren ezagutza beste adin tartetara zabaltzea. Oso aberasgarria da. Bestetik, gauza batek oso pozik utzi ninduen. Taldeak 25 urte bete zituenean Debara ibilaldia egin genuen urtemuga ospatzeko eta zikloturista taldea 1980an sortu zutenak gonbidatu genituen bertara. Horiatariko asko ibilbide hura bizikletan egiteko animatu genituen eta, behin urtemuga-

ko ibilbide hura egin ostean, hurrengo urtean berriz hasi ziren taldearekin bizikletan ibiltzen. Eta horrela gaur egunera arte!


- Zer du bizikletak jendea hainbeste erakartzeko?

Nire anaia 18 urterekin hasi zen ibiltzen eta nik zoraz zegoela pentsatzen nuen lagunekin parrandan nenbilen bitartean. Eta begira orain! Bizikletan ibiltzeko erabakia, bizitzan gusturen sentiarazi nauen erabakietariko bat izan da. Nire alaba gaztea jaio zenean erretzeari uztea erabaki eta lortu nuen. Orduan pisua hartzen joan nintzen, baina bizikletan ibiltzen has-tean berriz galdu nuen eta horrela jarraitzen dut. Gainera, fisikoki ona den arren, psikologikoki ere onuragarria da bizikletan ibiltzea. Niri buruko kontuak garbitzen dizkit behintzat. Eta Euskal Herriko txoko asko ezagutzeko aukera eman dit!

Ekhi Velar



AMAIA HARATEGIA



Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

es egolek
electrizitatea
iluminazioa

M. de Valdespina 14 · ERMUA
943 17 00 61 · egolek@hotmail.com

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

arral97.com

arral

Telf.: 943 17 60 75
banatzaile ofiziala

- Luis Cañas familia	- Pazo Señorans	- Txakoli Akarregi
- Añada Real	- Vicente Gandía	- Milana
- Vllera taldea	- Oriol Rossell	- La Loca Juana
- Gomez Cruzado	- Astobiza txakolina	- nitida

arral@arral97.com - Pol. Ind. Goitondo Galkoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

OUTUMURO
Kafetegia

Kafe eta tarta bereziak
Aukera handia **TE eta INFUSIOETAN**

Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu

Haritz Aranburu Larrondo, 23 urte:

“Nahixago dot nire jokalaria bati galdera on bat egittie, erantzun on bat emotie baiño”

Haritz Aranburu Larrondo mallabitarrak 23 urte daukez. Psikologiako gradu bat ikastiaz gain, Eibar futbol taldeko infantilek entrenatzen ditu.

- Nundik datortzu futbolera-ko afiziñue?

Txikitten, beti jokatzen gendun Mallabiko eskolako futbol zelaixen. Gero Zaldibarrren hasi nintzen jokatzen, Zaldua taldien, 12 urtekin.

- Zelan izen zan jokatzetik entrenatzerako saltue?

Kasualiaidez. Jubenilletan jokatzen neban, 17 urtekin, eta Ander Litagokin batera, Zalduko infantilek entrenatzeko aukerie emon euskuen. Lehenengo urtie, oso politte izen zan. Mallabiko Hiart Madariaga, Julen Barreinkua, Ibon Txurruka... entrenau genduzan, ta oso urte ona egin gendun. Partidu asko irabazi genduzan eta asko ikasi gendun danok.

- Zertan gozatzen dozu gehixau, jokatzen ala entrenatzen?

Jokalaria moduen, ez nintzen oso fiñe. Jajajaja! Baina asko disfrutatzen naban. Entrenadore moduen, ezberdiñe da. Ardura gehixau; partidu txarrak, entrenamentu txarrak etxera eramaten dozuz, entrenamentuek planifikau biher die... Ardurie entrenadore moduen askoz haundi-xaue da. Baiñe asko gustatzen jata hori ardurioi.

- Ze taldetan jardun dozu entrenatzaillie?

Hau seigarren urtie da en-

trenadore moduen. Lau urte egon giñen Zalduan, bi urte infantilletan ta urte bi kade-tietan. Oso urte politte izen zien, oso politte. Eta Eibarren bi urte daroadaz: lehen-go urtien, Bigarren urteko infantilletan hasi naban denboraldixe entrenadore moduen, baiñe azaro aldera Jubenilletara igon eustien bigarren entrenadore moduen, jaitsera postuetan eguen taldiai laguntzera. Asko ikasi naban.

- Momentu honetan zein taldetan entrenatzen dozu? Gustora zagoz bertan?

Orain, barriro, bigarren urteko infantilekin nau entrenadore moduen, 13-14 urteko umiekin. Oso gustora gagoz, oso lan talde polittakin. Mikel Goitandia ermuarra daukagu porteruek entrenatzen. Oso denboraldi poltita ari da izaten, Gipuzkoako finalera sartzeko aukera askokin. Horretaz aparte, umien jarrerie paregabie ari da izeten. Ez deusiet txartelik atara denboraldi guztixen protesta egitteagaittik, euren artien laguntasun ikaragarrixue dau... Plazer bat da horrelako predisposizioa dauken gaztiek entrenatzie. Benetan gustora gagoz.

- Eibar lehenengo maillan egotiek zukan eragiñie euki dau?



Bai. Orain psikologo bat daukagu entrenatzailliek eta jokalarixek laguntzeko, metodologixa departamentu bat sortu da, nutrizionista baten laguntzie be euki dogu, soldatak pixka bat igo deuskuez... Horretaz aparte, izugarrixo suertie daukegu, etxe onduen, lehen maillako partiduek ikusteko aukerie eukitziegaittik.

- Futbol entranatzaillie izeteko berezko gaitasune biher da ala ikesi egin leike?

Gaitasunen kontue, oso subjetibue da. Mille motatako entrenatzailliek dagoz. Nire us-tez izen biher dan gaitasun objetibo bakarra, lana egitteko

gogue da. Hortik aurrera, mille gaitasun ezberdiñeko entrenadore on asko ezagutzen ditut.

- Zertan oiñarritzen da zure teknike?

Entrenamentuetan, ariketa guztixek baloien oiñarritzen die. Ariketen %100 baloiarekin egitten doguz. Nahixago dot nire jokalaria bati galdera on bat egittie, erantzun on bat emotie baino. Beraiek aurkittu biher dabez euren kabuz erantzunek, gure laguntzarekin, jakiñe. Jokalaria independientiek sortzie da gure eginkizune, ez entrenatzailliearekiko jokalaria dependientiek. Partiduetan, asko gustatzen jata

MALLABIKO Herriko taberna

Eguneko platera (3€), menua, bokatak, plater konbinatuak, pintxoak, kazolak, arraina eta txuleta parrillan (enkarguz)...

943 174 952
(estartetan itzita)

EUSKAL PRESO ETA IHESLARIA
ETXERA

Oh la lá!

EMAKUMEENTZAKO MODA

Goienkale behea, z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Telefona: 943 53 57 48
Mugikorra: 649 55 99 09
ohlalaermua@gmail.com



nire taldiek baloie eukitzie, protagonistak izetie, jende askorekin heltzie aurkariaren areara, ez espekulatzie.

- Futbolak profesional mailletan polemika asko sortu ohi dau... Gazte mailetan beholan ikusten dozu?

Ikusten dodan gauzarik arrisurtsuena guraso batzuen jarrie da. Nik entrenatzen ditudan jokalarixen gurasuek, jarrerara paregabe daukie. Sorte ikarragarrix daukegu. Baiña ikusten die talde askotan, gurasuek epaillai protesta egitten, bere semiai zer egin behar dabean esaten... Oso arriskuetsuek die horrek jarrerok.

- Zein entrenatzaile miresten dozu?

Marcelo Bielsa. Futbola ulertzeko moduz gain, bizitza ulertzeko duken moduegaittik. Oso persona justua da, apala, sentimentu onekoa. Horrelako jende gehixau behar dau futbol munduak.

- Zein jokalarire miresten dozu?

Eta zein talde?

Jokalarire moduen, Karim Benzema Real Madrileko jokalarixe asko gustatzen jata.. Eta zelan ez, Leo Messi. Txikittetik Athletic-ekoa izan naiz, baiñe orain, bihotza erdibitute dauket: Athletic eta Eibar, Eibar eta Athletic.

- Nora heltzie gustauko jatzun?

Urte bat falta jata entrenadore nazionala izeteko. Hiru urteko modulo bat da, eta hurrengo urtien hasi behar naz azkenengo urtiakin. Urte gogorra izango da: karrerire, futbol entrenadore klasiek, taldie entrenatu... Entrenatzaillere modure ez jata gustatzen epe luzera begiratzie, argi dago-ta ze zaila dan entrenadore izetetik bizitzie. Lau partidu falta jakuz ligie amaitzeko eta horrek lau partiduok die entrenadore moduen buruen dauketena. Hortik aurrera, denboriek esango dau.

Ibaia Azagire
eta Igone Amesti

HAURRESKOLAKO MATRIKULAZIÑO EPIE ZABALIK

Udalak jakinarazi dau, 2015-2016 ikasturterako 0-2 urte bittarteko umientzat Mallabiko haurreskolan izena-emoteko epie zabalduko dala maiatzaren 4tik 13re. Beste informaziño edo daturen bat biher izanez gero, jarri harremanetan Mallabiko Haurreskoliakin ondorengo telefonuen: 943172003.

UDALERRIKO KALIEN, AUZUEN, BASERRIXEN ETA ETXIEN IZENEN EGUNERAKETA ETA OFIZIALIZATZIE

Herriko kalien, auzuen, baserrixen eta etxien izenak eguneratzeko eta ofizializatzeke lanetan dabil Mallabiko Udalare, Euskaltzaindiaren gomendixuek jarraitute. Horretarako erakusketa publikue egingo da apiriliaren zihere.

Auzo, kale eta baserrixen izen-zerrenda ikusteko aukerire daukezue Udaletxiaren, Kultur Etxiaren, edo webgunien. Zuen iritziexek emoteko, proposamenak edo alegaziñuek egin ahal izateke, hillebeteko epie egongo da BAOaren argitaralpena egin ondorenetik. Datu horiek ikusi edo iritziex emoteko jo udaletxera (10:00-14:00) edo Kultur Etxera (16:00-20:00).

ERABILERA ANITZEKO GUNIAN IZENA

Elizian eraikiñai atxikitte dauen lokalien obrak burutzen dabil azken astietan Udalare. Lokal horrek funtziño eta erabilera ezberdiñek eukiko dittu obrak amaitzen dienien. Momentuz lokal horrek ez dauke izen ofizialik. Hori dala-eta, udalak herritarren artien galdetu gure izen dau zein izen iruditzen jakuen egokixena toki horrentzat. Udaletxe eta Kultur Etxiaren jasoko die proposamenak apirillan 30a bittartien.

hamburgueseria
TITANIC



Pintxo dastaketa
poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83



Udal Euskaltegia

Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua
ERMUA • 943 170 925
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

Proba-Leku

Neopaindegia - Estetika



Probaleku 3, 1A

Tel. 943 17 05 42



Goienkale kalea (Ermua)

Tel: 943 172 454

sehiga.proteccionlaboral@gmail.com



TOLDOS Y PERSIANAS ORBE

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK
- MOSKITERAK
- ESTOREAK
- GORTINAK

TAILERRA: Zearreko buelta, 2
Tel. 943 17 66 34
Tel. mugikorra 630 01 13 41
48260 ERMUA (Bizkaia)

ERAKUSKETA: Karabixa, 1
Tel. 943 17 98 60
48260 ERMUA (Bizkaia)

Pizpilluen arbolia zein den ez dakizula?

Udabarriri loratzen da Valdespina jauregi osteko lorategixan. Bere lore larrosak danok ezagutzen doguz, baiña "Pizpilluen arbolia" deitziaren zergaitixa akordura ekarri nahi izan doguz oinguan.

Aho zabalik eta siñistu eziñik geratu nintzan gaztetxo batek arbola hori zein zan ez zekixala aitxatu zostanian. Ai ama, hain txarto transmitidu ete doguz Ermuko gauzak? Ze-ozer idatzi bihar neban. Arbolia-aren gaiñian berba einda ga-oz behiobehin aldizkari honen orrixetan, baina latigua barri-ro!

Udalak halan eskatuta, Jose M^a Marcos biólogo ermuarrak haren gaiñeko informaziñua batu eta liburuxka baten emon zan argira 1999an. *Magnolia soulangiana* da bere ize-na, askoren ustetan lorategi-xetako zuhaitzik ederrena. Lore haundi eta ugarixak er-netzen jakoz, barrukaldetik zurixak eta kanpokaldetik larrosa kolorekuak, hostuak bai-ño lehen zabaltzen diranak. Ikusgarrixa, benetan edarra da lorak botatzen ditxuan bi sasoietan, udabarrixakin ba-tera indartsu eta abuztuan makaltxuago.

Itxura guztien arabera, Jose Nepomuceno de Orbek, bere

botanika zaletasunagaitxik ezaguna zan Valdespinako IV Markesak ekarri zeban Fran-tzitik. Baina Markesen krixada frantsezen batek ekarri ete zebala be entzun izan da... Ehundik gorako urte gure on-duan emon ostian, 1989an gaixotu eta jausi egin zan; be-re kimu bat sartu zan barriro bertan, lorategixan eskinan, barruko zein kanpokuak ondo ikusteko moduko lekuan. Eta palaziuia ondiñok Markesena zan denporetan, jausten jako-zan lorak ziran hain justu bar-ruko eta kanpokook alkarren artian genduan jabego komun bakarra.

Alfonbratuta egoten zan dana, kamiñura arte, eta umion olgetia izaten zan ar-bolapian parau eta lurrera jausitxako lore aletxuak ahora sartzia. Arratsaldepasia luze juaten zan; txistuakin busti eta busti lorok eta aho bar-ruan puzpilla, burbuja bat ei-txia izaten zan gauzia, haren gustu mingots eskasari ixa-ixa erreparau barik. Petaluak ze-



resan haundixa zekela ikasi genduan: aukeran jausi barri-xak izan bihar ziran, zartatu edo usteltzen hasi bakuak... ontxuenak topatzen emoten genduan denpora mordua! Lo-rian ebagirik txikixenak kaka-tara botatzen zitxuan gure as-mo danak. Ekin eta ekin, ba-tzutan baina alperrik izaten zan ditxosozko puzpilliori eta-ratzia; oin, lortu ezkerro... ja, esateko eukitzen genduan!

Urte batzuk pasatu dira txi-

kixa koskondu eta lorak emo-ten hasi dan arte. Ohitxuria dakat, arbola-ipurdira hurre-ratu eta lorarik egokixena to-patzen. Gustua ez jako alda-tu; benetan da mingotsa, es-kasa... Sarritxan ahalegindu naz puzpillagintzan, baiña ne-re akorduz kale beti! Eta zer pentsatua be emon izan dos-ta: estilo honetako abilida-diak ume denporetarako erre-serbatzen ete dira?

Estibalitz Gonzalez



**ZUZENBIDE
KONTUAK**
Lege eta
kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

J. LUCAS
PINTURA EN GENERAL



630 22 51 36

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

Denda
berria

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

MUGA



KILOJAK

San Pelaio 4A behea
Telefonoa: 17 64 77
ERMUA



**Ignacio
Zuloaga
Institutua**

Eibar

Ate irekien eguna

Apirilak 29



Ordua 18:00

ARTE BATXILERGOA

A eta D ereduetan

Ikasleen lanen erakusketa

Portalean

Apirilak 17 - Maiatzak 3



Jardifietza 3 Eibar . Tel.: 943208349 . Fax: 943206048 www.ignaciozuloaga.net E-mail: 012055aa@hezkuntza.net

IZEN EMATE EPEA ZABALIK
Maiatzaren 4tik 13ra,
0 eta 2 urte bitarteko umeentzat
Irailan, urrian eta azaroan hasteko



ATE IREKIAK:
Maiatzaren 4an
eta 11an
(18:30ean)

Hurrengo matrikulak:

URRIAN: abenduan, urtarrilean edo otsailean hasteko.

URTARRILEAN: martxoan, apirilean, maiatzean edo ekainean hasteko.

ERMUKO HAURRESKOLA
Iparragirre, 15 (Antzoki parean)
943 17 64 31
ermua.ermua@haurreskolak.net

Haurreskolak

www.haurreskolak.net



Txindurri Dantza eta Txistu taldeak 40 urte beteko ditu

Z O R R I O N A K !




CITROËN
AUTOS AMEDI

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefona 943 17 04 14

Ferretería
ANBOTO
Burdindegi

Orain
KOTXEKO GILTZEN KOPIAK ere egiten ditugu



943 17 69 76
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
www.ferreteriaanboto.es



Montis DQ Mouth



Sagarra
Gastro-Pub

Probaleku 4 · Ermua · 943 946 810



BERRITZE LANAK
ZURE ERAIKINEAN
Ez dakizu nondik hasi?
GURE LANTALDE TEKNIKOK
LAGUNDUKO DIZU

ZUK ERABAKI

www.spara.es
info@spara.es
943 17 70 57

IZARRA CENTRE Eraikina Zeharkalea, 36, 3º 48260 Ermua -Bizkaia-



DESCUBRE-TÉ
Teak, kafeak, txokolateak,
eztia... eta baxera bereziak!!

Probaleku 4 Bis · Ermua, Bizkaia
943 03 15 81 · descubrenew@hotmail.com
www.teteriadescubre-te.com



Denetik zure maskotarentzat!

- Maskotentzako janaria
- Katu eta txakurrentzako osagarriak
- Maskoten autogarriketa
- Ileapaindegia
- Hezitzailea

Tel.: 943 05 44 20
Bizkaia etorbidea, 11 - eskuma
48260 ERMUA (Bizkaia)
bobby.todoparatumascota@gmail.com



Udalekuak 2015 Ingelesez

4 eta 11 urte bitartekoak

Data: Ekainaren 22tik uztailaren 23ra

Orduetgia: 09:30etatik 13:30etara (09:00etan umea ekartzea posible da)
Izena emateko epea: Ekainaren 17a, asteazkena

Apunta zaituz
ekainaren 1a baino lehen
edo ekarri lagun bat
eta beherapena izango duzu

Akerlei
hizkuntzak

Deitu edo etor zaituz gure Zentrora



TELEFONOA: 943 17 66 32
HELBIDEA: BIZKAIA ETORBIDEA, 5

**Batxilergorako Eskaintza (A eta D)
2015-2016**

**Zientziak eta Teknologia
Giza eta Gizarte Zientziak**



943 12 16 98
azitain@lasalle.es

Web: www.lasalleeibar.com
Twitter: @LaSalleEibar

Ugenatarrak, pistako erregeak

Alex eta Iñigo Ugena Ermuko atletismo harrobiko harribitxietariko bi dira. Maila altua dauka kirol honek herrian eta eurak dira horren erakusle bi. Espainia mailan lehiatzen dira eta baita emaitza onak lortu ere.

Alex da anaia nagusia. 17 urte ditu eta hezi-lasterketetan aritzen da. Lehen mailan zegoenean atletismoan entrenatzen zenbiltzan gazte batzuk ikusi zituen aitarekin eskolatik irtetzen ari zenean. “Nik hori egin nahi dut”, esan zion aitari. Esan eta egin. Aukera izan zuenean atletismoan izena eman zuen.

Iñigok 14 urte dauzka eta anaia nagusia entrenatu eta lehiatzen ikusi zuen urteetan. Berari ere atletismoarekiko grina sartzeko nahikoa. Pertikan aritzen da Iñigo eta Sabadellen jokatu den Espainiako Txapelketan bigarren geratu da berriki. “Hasieran denetarik egiten nuen, baina Alexi komentatu nion pertika egitea gustatuko litzaidakeela eta berak entrenatzaileari esan zion”, dio Iñigok. Ordu

jauzika dabil.

Alexek ere atletismoko beste proba batzuk egin ditu, baina belauna birritan hautsi ostean hezi-lasterketan zentratu da guztiz. “Gainera, heltzen da momentu bat proba bat aukeratu behar duzuna, izan ere, batean edo bestean aritzeko modu zehatz batean entrenatu behar duzu, muskulu batzuk garatu...”, azaltzen du Alexek.

Aire zabaleko denboraldia hasi berri dute eta aurrean dituzten helburuak betetzeko dihardute buru-belarri lanean. Orain arte pista estalian lehiatu dira, baina biak gusturago aritzen dira kanpoan. “Aire zabaleko lasterketak benetakoak dira, diela esaten da”, dio Alexek.

Lehiatzeaz gain, hala ere, atletismoan beste zerbaitengandik ari dira anai biak.



“Txapelketen barruan kirolari arteko giroa zoragarria da, konpetentzia guztiz sana”, Alexen iritziz. “Gure artean gomendioak ematen dizkiogu elkarri eta benetan pozten gara beste baten irabazten badu”, aitortzen du Iñigok. “Aurkariak ez dira gure etsaiak, gure maila hobetzen laguntzen dizkiguten kirolariak baino, lehiatzeak motibatu egiten

gaituelako”.

Gazteak dira, baina bidea egin dute atletismo munduan. “Lolo eta Antonio (entrenatzaileak) oso onak dira eta Ermuan zorte handia daukagu eurak gurekin egoteagatik”, aitortzen du Alexek. Euren markatzen die bidea Ugenatarrei, eta Alex eta Iñigok ederki betetzen dute hau.

Ekhi Velar

Peio Goikoetxea, aurrenengo

“Peio txapeldun” irakurri genuen orain gutxi plazako oholtzari lotutako kartel handi batean. Caparrosen irabazi berri zuen lasterketa txalotzea zen haren asmoa: Euskaldun Torneoan, 23 urte-

tik 25era bitarteko hainbat txirrindulariekin lehiatzen, txapela janztea ez da lorpen makala, lagunok! Eta plazako kartela ia-ia kentzeke, bigarrena etorri da: lau etapa irauten duen Volta a Lleidan erlojupekoa eta etapetako bat eskuratu ditu ermuarrak. burua ilusioz beteta, eta hankak eta pedalak erronkaz gainezka ditu aspalditik. Bejondeiola!



ILEAPAINDEGIA
Izaskun
 Goienkale, 9 (Plaza San Martín)
 48260 Ermua Bizkaia
 Tel. 943.17 66 90
ILEAPAINDEGIA

T XALAPARTA
 ABERNA
 Eta asteburuetan
 pintxoak, afariak
 eta bokatak!
 Erdikokale 13
 (Ermua) **ENKARGYAK**
 943 030 299

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Enter
 INFORMÁTICA
 SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA
 VI Centenario 19, behea
 Tel. 943 17 90 37
 e-maila: enter-i@arrakis.es

TIKETAK EMAN BEHARRETAN

Denda eta taberna batzuetan Aldundiko Ogasun sailerko ikuskariak izan dira, erosketa edo zerbitzu bakoitzeko tiketa emateko betebeharra dela-eta. 2013ko Foru Agindu bat da eta tiketak faktura sinplifikatu baten bestekoa da: ematen duenaren datu fiskalak agertzen dira, ez ordea jaso duenarenak. Ogasun sailetik argitu dugunez, beraiek ematen dela bermatu behar dute bakarrik eta behin jasotakoan kontsumitzaile bakoitzak erabaki dezala tiketa kontserbatu edo ez, beti ere gogoratuz erreklamazio bat egiteko orduan berori aurkeztea nahitaezko baldintza dela.

Antxitxiketanez 20 urte beteko ditu

Antxitxiketan aisialdi taldeak 20 urte beteko ditu aurten Ermuko haurrei eta gazteei aisialdian euskaraz gozatzeko aukera anitza eskaintzen. Taldeak hainbat ekintza antolatuta ditu urtemuga ospatzeko eta adin guztietako jendearentzat luzatu du ospakizunetan parte hartzeko gonbidapena.

Apirilaren 29tik maiatzaren 1era argazki erakusketa egingo dute Lobianon taldearen 20 urte hauetan jasotako irudiekin.

Maiatzaren 2an, zapatua, 11:00etatik 13:00etara jolasak egingo dira haur eta gazteen-tzat, 13:00etatik 14:00etara trikipoteoa egongo da eta herri bazkaria horren ostean (tiketak Txalaparta, Lurpe edo Infreñu tabernetan egongo dira salgai), 18:00etatik 19:00etara Irrien Lagunek bisitatuko dute Ermua, eta 19:00etatik 22:00etara erromeria izango da Gauargiren eskutik.

Maiatzaren 3an, domeka, 12:00etatik 15:00etara puzgarriak eta apar festa izango da, eta 15:00etatik 17:00etara begiraleek bazkaria edukiko dute.

Euskararen inguruko hausnarketa abian

Euskal Birusa elkarteak Ermuan euskararen inguruko gogoeta zabala egiteko prozesua jarri du martxan. Euskal Birusa sortu zenean, orain dela 25 urte, hainbat helbururekin hasi zen eta horrela jarraitu izan du, baina elkarteak uste du badela sasoia hori baloratu eta aurrera begira helburu batzuk jartzeko.

Hausnarketaren bitartez Euskal Birusa kanpotik nola ikusten den jakin nahi du elkarteak eta zer duen hobetzeko. Gainera, Ermuan dauden hutsuneak aztertu, eta proposamen zein ideia berri zein interesgarriak jaso nahi ditu. Horretarako, Ermuko hainbat talde, elkarte, eragile, norbanako... gonbidatu ditu Euskal Birusak hausnarketan parte har dezaten. "Euskal sarea" bezala definitzen du euskara elkarteak osatu den taldea.

Hausnarketa prozesua hiru saiotan egingo da. Lehena apirilaren 20an egin zen, bigarrena maiatzaren 11an egingo da eta, hirugarrena, ekainaren 1ean. Guztiak, Lobianon 19:00etan.

Euskal Biruseko Batzar Orokorra maiatzaren 25ean

Euskal Birusak Batzar Orokorra egingo du maiatzaren 25ean Lobianon. Lehen deialdia 19:00etan izango da eta bigarrena 19:30ean. Bertan, 2014 urteko balantzea eta jardueraren txostenaren aurkezpena eta onspena egingo da, 2015eko jardueraren eta aurrekontu planaren aurkezpena eta onspena, elkartearen estatutuen eguneratzearen onspena, eta zuzendaritza batzorde berriaren aurkezpena eta onspena. Euskal Biruseko bazkide guztiak daude gonbidatuta bertara.



LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
© 943 17 47 44

Zure publizitatea:
drogeteniturri
aldizkarian

943 179350 / 688 632876
drogeten@gmail.com



NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA



San Inazio 4 - Ermua
943 030 512 / niklinika@gmail.com

Pub Dakota



Probaleku, z/g
Ermua (Bizkaia)
dakotaermua@hotmail.com

KRABI

Ileapaindegia
Estetika



Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

XXIII. Liburu eta Disko Azoka maiatzean

Maiatzaren 7tik 10era bitartean egingo da Euskal Liburu eta Disko Azokaren XXIII. edizioa. Aste-gunetan, hau da, ostegun eta ostiralean (hilaren 7 eta 8an), 11:00etatik 14:00etara eta 16:30etatik 20:30etara egongo da zabalik azoka; eta asteburuan (hilaren 9 eta 10ean 11:30etatik-14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara).

Postu bakoitzean liburu eta diskoak egongo dira salgai eta, horrez gain, euskal aldizkarien erakusketa ere egingo da. Euskal Birusak ere bere standa izango du azokan. Badihardugu eta Topaguneko hainbat liburu, herriko sortzaileen liburu eta diskoak, eta Drogeteniturrri aldizkariaren aleak egongo dira eskuragai bertan.

Era berean, hainbat ekintza antolatu dira azokaren inguruan. Maiatzaren 8an, adibidez, Iñaki Carrertero ipuin-kontalaria egongo da Orbe Kardinalaren plazan 18:00etan; haurrentzako tailerrak egongo dira hilaren 9an 12:00etan, eta Jon Martin eta Oskar Estangak bertso musikatuak eskainiko dituzte maiatzaren 10ean 13:00etan.

Berbalagun ekintzaz beteta dator

Maiatzeko agenda beteta dauka Berbalagunek. Denetarik ekintzak herrian euskararen erabilera sustatzeko. Hasteko, hilaren 5 eta 12an masaje ikastaroa egongo da Amaia Arriagaren eskutik Lobianon 19:00etan.

Hilaren 9an, bestetik, Debatik Zumaiaraino ibilaldia egingo da. Debara trenean joateko asmoa dago eta handik Zumaiara oinez. Eguraldiaren arabera, hondartzan jan eta bainua hartzeko aukera egon daiteke, eta eguerdi aldera Ermura itzultzea aurreikusten da.

Maiatzaren 14an Berbafaria egingo da urtero ohiko den bezala. 20:30ean hasi eta pare bat orduz euskaraz egin eta ondo afaltzeko aukera luzatzen da.

Hilaren 18 eta 25ean zumba ikastaroa egingo da Lobianon, eta 23an 10:30ean guraso tailerra antolatu da Antxixiketan taldearekin elkarlanean. 2. aldia da tailerra egiten dena eta jolasen bitartez guraso eta umeak euskarara hurbiltzea da helburua.

Ekintzekin amaitzeko, Eizagatik Santa Marinara ibilaldia ere antolatu da. 3 urtez gorako umeekin egiteko moduko ibilaldia da hori eta Santa Marinan txitxiburduntzia egingo da.

Piropo lehiaketak baditu irabazleak

Zortzigarren edizioa egin du aurten Piropo lehiaketak eta inoizko parte hartze handiena izan du. Guztira 185 piropo jarri dituzte mahai gainean parte hartzaileek, baina hiru konplimenduk soilik jaso ahal izan dituzte sariak. Nagusien kategorian Donibane Pasaiaiko Idoia Aranburu izan da garaila 'Zure musu piztia, nire gorputzaren berotasun guztia' piropoarekin. Aranburuk Donostiako La Perlan bi lagunentzako egun pasa, masajea eta menua irabazi ditu. 14 eta 17 urte bitartekoen kategorian Alazne Lopezek irabazi du 'Zu euskaraz entzutea zein polita den jakingo bazenu...' piropoarekin eta Ermuko Merkatarien Elkarteko dendetan gastatzeko 100 euroko txekoa lortu du horrela. 14 urtetik beherakoen mailan, bestetik, Jone Garcaren 'Nora zoaz hain polit? Begi horiekin zuk nire bihotzean egin duzu klik' piropoa izan da irabazlea, eta 50 euroko txekoa lortu du sortzaileak.

Vertigo Rock maiatzaren 15 eta 16an

Rocka izango da nagusia Ermuan maiatzaren 15 eta 16eko asteburuan. 2007tik ohikoa den bezala, Vertigo Rock datorkigu gurera herriko eta herritik kanpoko rock taldez betetako kartelarekin. Ermuko talde bik emango diote hasiera aurten jaialdiari, Insohnmio eta Storbais arituko baitira maiatzaren 15ean Orbe Kardinalaren plazan. Hurrengo egunean, Angelus Apatrida, Leize, Stai Zitto, Sffera, Road to Ruin eta Txarangazo in your bazo taldeak izango dira eszenatoki gainean.

ANAIEN ARTEKOA

Korrikaren egitarauaren arrimura, bertso saio bitxia izan zen Infreñu tabernakoa eta hain justu horregatik ekarri dugu orriotara. Eta zeri erreparatuta bitxitasun hori? Ba lau anaiak hartu zutelako parte bertan: Jon eta Asier Unanue, Iker eta Josu Araiztegi eta bikoteokin hitz-jolasean Unai Rodrigez. Afizio eta pasioak familian transmititzen diren seinale, ezta? Giro polita sortu zuen boskote ermuarrak, familia artekoa, sekula ez hobeto esanda! Ostegunetan batzen dira Eskilarapekon, ondo pasatzeko aitzakia lagun. Bertsolagunak hartzeko prest beti, zer esana eta zer kantatu duen edozein eskuzabal hartuko dute. Animatzen?



IRAKURKETA JARRAIA ESKOLABARRIN

Nazioarteko Liburu Eguna ospatuko da apirilaren 23an eta, irakurzaletasuna bultzatu eta literatura klasikoaren garrantziaz jabetu eta baloratzeko helburuarekin, Eskolabarrin Don Quixote liburuaren irakurketa jarraia egingo dute eskolako bideogelan. Hiru hizkuntzatan egingo da irakurketa, 1. eta 2. mailakoek gazteleraz, 3. eta 4. mailakoek euskaraz, eta 5. eta 6. mailakoek ingelesez. Irakurketa eskolako orduetan egingo da, 9:00etatik 12:30etara eta 14:30etatik 17:00etara.



Pinboak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitartekoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

Egaña

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

Bokazioa ez da elizarena soilik, ezta?

Bokazioak deitzen gaitu. Interesatzen gaituenak deitzen gaitu, gure atentzioa erakartzen duenak. Txikitatik, gustatzen zaizkigun jolasak ditugu eta baita ikusmirarik sortzen ez dizkiguten beste batzuk ere. Itxuran, ezerenganako interesa ez duten umeak daude, edozerk nekatzen dituen horietarikoak, eta eurentzat zerbaitetan zentratzea ezinezkoa dela ematen dutenak; baina benetan beti dago gustatzen zaien zerbait.

Gurasoak behatzaile onak izan behar dugu eta umeak jolas ezberdinetara nola hurbiltzen diren jabetu: 'kooperatzen du edo ez?', 'aurrea hartzen du edo isilik geratzen da?', 'bakarrik edo lagunekin jolastea du nahiago?'... gauza guzti horiek haurren lehentasunen berri ematen digute.

Lan estiloekin kontzentrazioa, dedikazioa... behatu ditzakegu, hau da, umeak egiteko horrekin duen elkarreragintasuna.

Howard Gardnerren adimen anitzetan oinarritzen den Spectrum Proiektuan, Haur Hezkuntzako hainbat umeen gaitasun kognitiboak neurtu ziren 1984tik 1988ra. Tradizionalki eskolak ebaluatzen ez dituen jarduerak garatzen ikusi nahi zituzten umeak. Modu horretan, adibidez, gaitasun musikal handia duen ume batek, asimilatzen zaila egiten zaion beste eduki baten ikasketa estimulatzeko erabili zezakeen gaitasun hori ('adimena' Howard Gardnerren iritzi). Adibidez, ariketa matematikoetan.

Heldutasun bokazionala amaitu gabe geratzen den



Juan Carlos Martin

prozesu jarraitua da kasu gehienetan. Cadizeko Unibertsitateak 2009an egindako ikerketa batek dio ikasleen %70ak ez dakiela zein karrera hautatuko duen unibertsitatean sartzerakoan; unibertsitarioren %40 karrerako lehen urtean konturatzen dela ez duela ikasten ari dena ikasi nahi eta urtero 130.000 gaztek boluntarioki uzten dituzte ekindako ikasketak. Bokazioa lan-tzen dugu?

Heldutasun bokazionala amaitu gabe geratzen den prozesu jarraitua izaten da kasu gehienetan

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolajea
- * Enrailak
- * Giltzak
- * Sarrailagintza
- * Kit altzariak

Beharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

LAN BILA

Mutil arduratsuak sukaldari laguntzaile bezala edo baserrian lan egingo luke. Esperientziaduna. Gida baimenarekin. 631506108.



Apirilak 26
Zorionak Oihan zure 6.urtebetetzean! Asko maite zaitugu!



Apirilak 12
Zorionak Urko zure 3. urtebetetzean! Muxu potolo bat denon partez!



Apirilak 8
Zorionak Eider! 6 urte zoragarri pasa dira jada. Musu beroak familiaren partez. Horrela jarraitu!

Hurrengo zenbakirako azken eguna: **MAIATZAREN 20a**



Zorionak Laura! Zure urtebetetzea delako eta ama izango zare-lako! Seguruenik, gure bizitzako urterik ederrena izan da, Ferrero pastela izan ez badugu ere. Maite zaitut! Josemon.

Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA



optika
ITZE

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51



PUB YOMY

Zubiaurre
kalearen
bihotzean



FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

MALLABIA 1985

Argazki hau 1985 ingurukoa da. Mallabiko frontoian aterata dago eta bertan Mallabiko dantza taldeko kideak agertzen dira. Urte horretan errifa-egutegi baten argitaratu zan. 100 pezetaren truke, 25.000 ptako saria eskeintzen zan.

Atzetik aurrera eta ezkerretik eskuinera:
Lehen ilara: Cecilio Garrido, Izaskun Garitaonandia, Eli Txurruka, Unai Martin, Igor Intxaurraga, Jose Luis Telleria, Jesus Mari Telleria, Jaime Telleria, Alberto Dorrio, Ainhoa Mallabiabarrena, Lorea Arregi, Aintzane Arregi, Arrate Carrillo, Rosa Moreno, Nekene Mallabiabarrena, Goreti Txurruka, Agurtxane Aranburu eta Idoia Garitaonandia.

Bigarren ilara: Asier Azagirre, Unai Sanz, Naiara Txakartegi, Olatz Areitioartena, Marian Garcia, Mikel Pradera, Mari Mar Vazquez, Jaione Castañeda, David Ferrero, Idoia Gisasola, Itziar Pradera, Ignacio Rojo, Ruben Markina eta Juanma Ferreiro.

Hirugarren ilara: Iratxe Pradera, Ainhoa Solozabal, Izaskun Arana, Aitor Castañeda, Luis Alberto Ferrero, Asier Garitagoitia, Mikel Garitaonandia, Leire Astarloa, Izaro Zelaieta, Iratxe Mugarza, Ainhoa Mugarza eta Saioa Astarloa.

Laugarren ilara: Leixuri Solozabal, Nerea Solozabal, Iñaki Garitaonandia, Xabat Areitioartena, Asier Alvarez, Asier Arellano, Ander martin, Gorka Arellano, eta Koldo Pradera.



ERMUA 1983



Kartel batetik aterata dago argazki hau eta demokrazia sasoiaren Herri Batasunak aurkeztutako bigarren hautagai-zerrenda osatzen zuten erretrataturakook. Ezkerretik eskumara eta atzeko hilaratik hasita: Juan Luis Azpiri *Guara*, Manuel Holguin, Jose Ignacio Sarasua, Victor Sáez *Baltza*, Jose Angel Ziarsolo *Joxepi* eta Roberto Hidalgo *Urkullu*. Erdikoan: Gorka Olaizola, Mariaje González, Tomas Trifol, Fernando Larrea, Jose Felix Igartua, Jose Carlos Casalejos *Fermin*, Isaac Barreiros eta Iñaki Delgado. Makurtuta: Miguel Berrizbeitia, Paco Aranburu *El Indio*, Alberto Zumelaga *Txikito*, Jose Antonio Hernández *Patxon*, Josefina Barrera eta Amaia Zamakola. Legealdi haretan, Jose Antonio Hernandez Conde izan zen taldeko zinegotzia.

Quetzal
[arropa, bitxiak, opariak...]

Goienkale, 9 • 48260 ERMUA | 943170065
www.quetzalmoda.com

SAGARDUI
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305

san pelayo
clínica dental hortz klinika

San Pelayo 5, 1º
Ermua (Bizkaia)

Olatz Garcia Arregui

943 17 04 04

Udal Hauteskundeak egingo dira maiatzaren 24ean. Hautestontziekin zita daukate herritarrek maiatzaren azken aurreko asteburuan eta hor erabakiko da zeintzuk hartuko duten herritarren ordezkari Udalean. Zazpi alkategai aurkeztu dira Udal hauteskundeetarako, baina bakarrik hartu izango ahal du aginte makila. Herritarrek eskuetan dute erabakia.

Herriko alkatea izango bazina, zein izango litzateke zure lehentasuna?



Gazte-enplegua izango litzateke nire lehentasuna. Inongo aukerarik ez daukaten seme bi ditut etxean eta arazo hori askok dutela iruditzen zait. Herriak gauza asko behar ditu, parke gehiago adibidez, dena asfaltoa delako, baina lehentasun moduan gazte-enplegua esango nuke.

Mari Carmen Fernandez, 53 urte



Arazoak dituzten familiei laguntzen saiatuko nintzateke lehenik. Sasoi txarra bizi dugu eta badaude laguntza asko behar dituzten pertsonak. Ni alkate izan edo ez, edozeinentzat izan beharko litzateke hori lehentasun nagusia.

Digna Delgado, 54 urte



Zaila da ni egoera horretan imajinatzea, baina ahal izanez gero, denok enplegua edukitzeko egingo nuke lan. Gaur egun zaila da hori gertatzea, baina tira. Bestetik, jubilatuen elkarteko presidentea naizenez, jubilatuei gauza gehiago eskaintzea ere gustatuko litzaidake.

Jose Antonio Lopez, 66 urte



Ez dakit zein izango litzatekeen nire lehentasuna. Dena dago gaizki! Edozer gauza aldatzea ondo egongo litzateke, nik dena aldatuko nukeelako. Hala ere, badakit ez dela erraza. Ez litzaidake alkatea izatea gustatuko!

David Copa, 29 urte



ZINEA

2tik 4ra
9tik 11ra
16etik 18ra
23tik 25era
30etik 1era
 Ermua Antzokian.
 Hainbat film eta ordutegi.

ZINE-KLUBA

Hilak 7
Hilak 14
Hilak 21
Hilak 28
 Ermua Antzokian.
 Hainbat film.
 20:30ean.

UMEENTZAKO ZINEA

Hilak 3
Hilak 10
Hilak 17
Hilak 24
Hilak 30
 Ermua Antzokian.
 Hainbat film. 17:00etan.

ERAKUSKETAK

Hilaren 3ra arte:
 Argazkiak: Antxitxiketan taldearen XX. urteurrena.

Hilaren 4tik 16ra:
 Ignacio Giménez lanak.

Hilaren 8tik 22ra:
 Gerediaga elkartearen 50. urteurrena.

MUSIKA

Hilak 8:
 Kalejira: Irulitxa txarangaga. 19etan.

Hilak 8:
 Kontzertua: Marlango 22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 12€

Hilak 15:
 Vértigo Rock: Storbais eta lmsohmnio. 20etan. Orbe kardenalaren plazan.



Hilak 16:
 Vértigo Rock: Txarangazo in your bazo, Road to ruin, Stai Zitto, Sffera, Leize eta Angelus Apátrida. 16etatik. Orbe kardenalaren plazan.

Hilak 29:
 Musika eta dantza jaialdia: hainbat talde.

ANTZERKIA

Hilak 15:
 "Pankreas", Tartean taldearen eskutik. 22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 10€



Hilak 22:
 "La mate porque era tuya", Sutege antzerki taldearen eskutik. 22:15ean. Ermua Antzokian.

UMEENTZAKO EKITALDIAK

Hilak 1, 8, 15, 22 eta 29:
 Barixakuetan: haurrentzako jolasak. 17etan. Orbe Kardenalaren plazan.

Hilak 2 eta 3:
 Antxitxiketan taldearen XX. urteurrenaren festa: jolasak, erromeria, pailazoak, apar jaia.



BESTELAKOAK

Hilaren 7tik 10era:
 Euskal liburu ta diska azoka: hainbat ekitaldi. Orbe kardenalaren plazan.

Hila 18tik 24ra:
 Galiziako letreei buruzko ihardunaldiak: hainbat ekitaldi. Orbe Kardenalaren plazan eta Galiziako zentruaren egoitzan.

Hilaren 21etik 30era:
 Gaztela-La Mantxako kultur astea: hainbat ekitaldi.

Hilak 30:
 Kulturen arteko jaialdia: musika, jolasak, gastronomia, artikuntza... Orbe kardenalaren plazan.

Patxi López

TXINDURRI
TALDEA
Tokian tokiko

PRO

- ARRAINDEGIA
 - ITSASKIAK
 - ARRAIN FRESKOAK ETA IZOZTUAK

ESKAINZA BEREZIA OSTIRALERO

Zubiaurre, 21 baxua
 Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
 " 17 24 33 (etxea)
 Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
 ERMUA

Infreñu Taberna

Kardenal Orbe plaza
 943 174584
 www.infretaberna.com

ALBOKA

MUSIKA
ESKOLA

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardinoa
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

Unibertsitatea,
inguruko gizartearekin
inplikatzea ere bada.

erronkarako #prest



Katalin Madariaga,
Lidergo ekintzailea eta berrikuntza,
3. maila.

PREST



**MONDRAGON
UNIBERTSITATEA**

GRADUKO ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

DONOSTIALDEA · MAIATZAK 9

Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

ARRASATE · MAIATZAK 16

Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

GOIERRI · MAIATZAK 21

Osteguna, 17:30 / Areto Nagusia

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

BIDASOA · MAIATZAK 9

Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

OÑATI · MAIATZAK 16

Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

BILBAO · MAIATZAK 23

Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

**HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN
FAKULTATEA**

ESKORIATZA · MAIATZAK 30

Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

ARETXABALETA · MAIATZAK 30

Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA
Basque Culinary Center

DONOSTIA · MAIATZAK 23

Larunbata, 10:30 / Auditoriuma

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI

902 110 436

www.mondragon.edu/prest



ASKATASUNA
JUSTIZIA SOZIALA
ECOLOGIA

REPARTO DE LA RIQUEZA
TRANSPARENCIA
EUSKARA



DEMOKRAZIA
ENPLEGUA

SOLIDARIDAD

FEMINISMOA

PARTEHARTZEA
EZKERRETIK
IGUALDAD
DUINTASUNA

IRAULTZA DEMOKRATIKOA
PRESOAK ETXERA



Ermua berrian

hari gara

ehbildu



Bildu Ermua



@EHBildu_Ermua



bilduermua@gmail.com

ermua.ehbildu.net